



K A F K A B I L B O N

Ereintza Elkarteak antolatutako “Errenteriako Hiria” Ipui Lehiaketako 1.

Pedro M^a Alberdi

Garai batean, gu Bilbora etortzen hasi berritan, estudiante gipuzkoar asko –aste barruan hirian eta hiri inguruko auzunetan sakabanatuak– Arriaga atzean elkartzen ginen ostiral-iarunbatean, asteburuan bihurtuko gintuzten Irun-Gijon autobusei itxaroten. Gu garaiz iritsi ohi ginen asteroko zita hartara; ez hainbeste autobusak galtzeko beldur ginelako nola adiskideekin hitz egiteko eta elkarren berri jakiteko beta edukitzearen. Horregatik, iritsi bezain laster, ezagunen aurpegiak bilatuko genituen lehenik han bildutako bidaiarien artean, eta ezagunik ezean, bileteak ateratzeko ilaran jarriko ginen, haien etorrera zelatzen genuela. Lehenago edo beranduago norbait agertuko zen, edo dagoeneko bazeuden han gu ailegatzean, eta piska banaka estudiante gipuzkoarren lagunarteak handituz eta ugalduz joango ziren, autobusetara igotzeko ueña heldu bitartean.

Urteak pasako ziren, eta luze gabe aste barruko sakabanaketaren ondorioak igartzen hasiko ginen. Egun batetik bestera, gutako askok noiznahi bizitokiz aldatzeari ekingo zion, lagun berriak egiteari, lehengo ikasketak utzi eta bestetan matrikulatzeari, eta hala, hasierako giro amankomuna nahastu egingo zen. Hainbestearino nahastu ere non, lehen ez bezala, jadanik ez baigenekien ziur nor non bizi zen, norekin, zer kurtsotan zebilen, zertan ematen zuen denbora astean zehar. Susmatu bai, baina zehatz jakin ez. Eta gu harroak izan eta ezer galdetu ez. Halatan, bada, egin gabeko galderak eta galderarik gabeko erantzunak ugaritzeaz batera, gure jarrera aldatu egingo zen, eta itxaronaldi haietan jadanik ez genuen edozeinen konpainia bilatuko, baizik gertuko enena soilik. Ondorioz, gure lagunarteak txikitu egingo ziren, senidetartu.

Garaiz iristen segiko genuen halere, eta gure arteko hizketaldiak ohizkora lerratzen hasi zirenean, inguratzen gintuen

paisaiari erreparatuko genion. Gure aurrean, metro gutxira, *Nerbioi ibai zabala, ibai ospetsua, Euskalerriko ibai guztien ibaia*, batzutan mardul eta handi, bestetan ez hain mardul eta ez hain handi, inoiz baju eta mendre, beti ere narratx eta zarpail topatuko genuena. Noizbait ere konturatuko ginen zerk eragiten zuen ibaiaren gizen-argal itxuraldaketa hura, eta ez ginen haserre, alajaina, edozein enziklopediatan irakur daitezkeen honako hitz zentzuaz jabetu ginenean: *Bilbao, Nerbioi ibaiak zeharkaturiko hiria, edo hobeto esanda, izen bereko itsasadarrak, zergatik eze haren urek itsas-mareen gora-beheraldiak jasaten baitituzte bertatik igarotzean,* Ibaiaz bestaldean berriz, bertako tren geltokiaren atalburuan hizki handiz idatzita, Santurce-San Julian de Muskiz zioen errotulua, guri ulergaitz zitzaiguna eta gure arreta merezi izan ohi zuena. “Ez al huan, bada, Santurce azken herria itsasoa baino lehen?” galdetuko genion geure buruari, “Zer duk orduan San Julian... hori? auzoa? portua?”. Guk sekula entzun gabeko izen hark gure irudimena pizten zuen bere apalean. Eta beste argudiorik ezean, errotuluan betetzen zuen puska handia ikusita, haren garrantzia beste nonbait –agian antzinako denboretan, trenbidea zabaldu zuten garaian kasu, edota lehenago, garraioak gurdietan egiten zirenean, esate baterako– bilatu behar zela otuko zitzaigun... Estazioaz aski haruntzago, altura eta tamaina askotako eraikuntzen gaintetik, *Banco de Vizcaya*-ren goikaldea, hiriaren begirale eta zaindaria. Berari begira, *Económicas*-eko adiskideren batek inoiz esandakoa gogoratuko genuen, hots, kontraesana dirudien arren, dirua beldurtia dela berez, erne egon behar duela beti. Honekin batera *Psicología*.ko besteren bati inoiz entzundakoa ere gogoratuko genuen, hots, kontraesana dirudien arren, beldurra ausarta dela. Eta kontraesanen zurrunbiloan murgilduta, guk etxe-orratzaren azken solairuetara begiratu eta ez genuen jakingo zer pentsatu hango biztanleez.

Urte gehiago pasako ziren, gure estudiante-aldia bukatuko zen eta goizetik gauera lanbidearen arazoari fronte egin beharrean aurkituko ginen. Asmo horrekin, gutako gehienak norbere sorterrira itzuliko ziren bitartean, batzuk Bilbon segitzea erabakiko genuen, edota hala nahi izango zuen gure patuak. Beraz, sorterrira bueltatze orokor haren ondotik, astero Arriaga atzean bildu ohi ginenon lagunarteak urritu ezezik soildu egingo ziren jendez, desagertzeraino. Guztiarekin, garaiz iristeko ohitura ez genuen sekula galduko, eta ikusmiran egotea –denborapasa arintzeko modu bat baino ez, ordu arte– gure itxaronaldietako entretenimendu nagusi bilakatuko zen. Hala, joandakoen lekua beteko zuten estudiante gipuzkoar gazteetara arreta jarri eta guk emandako pauso guztiak errepetitzen zituztela delberatuko genuen. Paisaiari zegokionean, berriz, kaioen presentziaz ohartu eta haien ur azaleko hegadak ikusiz, haien marruak entzunez, Bilbo –barrukaldeko izan arren– zenbateraino dagoen itsasoari lotua hausnartuko genuen.

Baina guztien gainetik, errotulu txiki hark harrituko gintuen. Gugandik aldendu samar ageri zen, ibaian gora aldera Santurce-ko tren estazioari jarraitzen zion etxe ilara altuaren laugarren pisu batean, balkoiaren zabaleran kokatua. “Assicurazioni Generali” irakur zitekeen bertan, hizkiak bereizteko pazientzia hartuz gero. Non entzun genuen izen hura, ordea? Nondik egiten zitzaigun ezagun? Izena italiarra zen ezpairik gabe, baina hori jakiteak ez zigun askorik lagunduko ikerketan. Zenbat itxaronaldi igaro ote ziren inkognita argitu orduko? Auskalo. Kontua da noizbait ere argia egingo zela gure buruan. Halako batean izen hark Karfkarekin zerikusirik bazuelako susmoa erneko zitzaigun barrenean. Susmo hura ez zen hutsetik sortutako irudipena izango, baizik aurretik irakurritako zerbaiten oihartzuna. Bapatean idazlearen bizitzako xehetasun batzuk gogoratuko genituen, nola abokatua zen ogibidez, nola bizitzia guztia bulego batean ihardun zuen lanean, eta nola izugarri sufritu zuen idazteari emana bizi ezin zuelako. Hori al duk –galdetzen genion geure buruari, ibaiaz bestaldeko errotulu txikiari begira– Kafka hain estu hartzen zuen *ofizinari* ena? Galderak ez zigun bakerik emango asteburu hartan. Bilbora itzulirik, haren biografia bilatu eta gure jakimina asetzeraz azkartuko ginen. Bertan irakurriko genuenez, *Franz Kafkak 1906ko ekainaren 18an jaso zuen Zuzenbidean Doktore titulua, eta urtebeteko praktika judizialak egin ondoren, 1907ko urriaren 1ean lanean hasi zen “Assicurazioni Generali” izeneko aseguru etxean*”.

Errezeloa egia bihurtuko zen, beraz. Ez dago esan beharrik poza sentituko genuela. Izan ere Kafkarekiko irrikan bizi ginen, haren izena gogora etorri zitzaigun lehen momentuaz gero. Gainera, biografiako datuen arabera, idazlearen egoera eta gurea oso antzekoak zirela juzkatuko genuen: Kafkak garai hartan hogeita lau urte omen zituen, guk genuen adina hain juxtu, eta lehenengo lanean hasi berria omen zen, gure kasuan gertatzen zen bezala. Ez genion inori ezer adieraziko, halere. Hura gure sekretu txikia izango zen. Hurrengo asteetan autobusa hartzera joango ginenean, harro azalduko ginen estudiante gipuzkoarren biltokian. Haien alboan jarrita, beraien arteko elkarrizketak entzun, eta betiko moduan segitzen zutela erabakiko genuen, hots, lagun talde txoak osatu eta astebarruko pasadizoak elkarri kontatzen. Gu jeneralean gustora egongo ginen haiei begiratzen. Inoiz, ordea, haien berriktarekin gogaiturik, ibai aldera jiratu burua eta errotuluarekin egingo genuen topo. Hura ikusteaz batera, Kafkaren izenak eta irudiak gorputz hartuko zuten gure baitan, eta

idazlearen ahaztuta geneukan zenbait gauza gogoratuko genituen.

Esate baterako liburu hura, azalean Kafka bere andregaiarekin agertzen zena, eta honi idatzitako gutunak jasotzen zituen. Bolada batean, urte asko ez zela, behin baino gehiagotan ikusiko genuen erretrato hura gure mesanotxe gainean. Harrez gero, ordea, ez ginen batera akordatu izango liburuaz, zeren oroipenaren estraineko momentuan arrotz egingo baitzitzaigun haren agerpena. Nolanahi ere, pixkanaka akordua etorriko zitzaigun eta oroipenak harritu ezezik poztu egingo gintuen. Oroimenetik tiraka, luze gabe gutun haietako zenbait pasarte gogoratuko genituen, gogoratzea merezi zutela eritziko genienak. Hala nola, bere “Metamorfosia” ospetsua bukatu zuen gauean idatzitako gutunean andregaiari esaten ziona: *Egizu negar, ene maitea, egizu negar. Nire ipuinaren heroia arestian hil da. Kotsolatzen bazaitu, nahiko lasai hil dela esango dizut, guztiak adiskidetuta*. Edota beste hura, denboran aski lehenagokoa izan behar zuena: *Oso gaua da eta alde batera utzi dut ipuina. “Metamorfosia” du izena. Istorioa beldurgarria da, beldur handia emango lizuke. Baina, ondo pentsatuta, agian ez lizuke horrenbesteko beldurrik emango, izan ere beldurra da nik nire eskutitzekin ematen dizudana*.

Tarteka, *ofizinari* buruzko aipamenik ez zen faltako guk gogoratuko genituen pasarte haietan. Harako gutun haren hasieran bezala: *Nire zuzendariaren mahaitik idazten dizut. Haren ordezkoa egiten ari naiz*. Gogorazio honen ildotik, berehala ohartuko ginen Kafkaren gutunak –guk uste izango genuenaren kontra– ez zirela denak gelako bakardadean idatzitakoak izan, baizik haien artean bazirela lanean bertan idatzitakoak ere. Eta gutun beraren amaieran: *Bukatu beharra daukat. Zuzendari batek ez dauka bere maiteñoari eskutitzak idazteko eskubiderik. Gure sailean bulegari mordera gaude, eta denek zuzendariaren esenplua jarraituko balute, a zer katastrofea sortuko litzatekeen*. Oharpen honekin batera burura etorriko zitzaigun Kafkak bere andregaiak bidalitako gutunak *ofizinari* ena –eta ez etxean– jasotzen zituela gogoraziko zigun pasarteren bat edo beste. Esaterako: *Ofizina, den baino itsusiago bihurtzen da zure eskutitzekin egiten duen kontrastearekin, baina aldi berean, den baino ederrago, zure eskutitzak heltzen diren tokia delako*. Edota beste bat: *Igandea izan arren, ofizinari joan naiz zure eskutitzik heldu den ikustera*. Edo harako hura, gutuna bulegoan irakurri zuela adierazten zuena: *Bezero bat nire mahai aurrean, eta ni zure eskutitza irakurtzen txoro bat bezala*. Eta azken bat, agerian uzten zuena bulegoan ez bakarrik jaso eta irakurri egiten zituela gutunak, baizik inoiz erantzun ere bai: *Nire hiru zuzendari nagusiak gainean banitu ere, beren begiak nire idazlumara jarrita, ezin izango lidakete zuri idaztea galerazi, bada zure eskutitza zerutik bezala erori da arestian nire eskuetara*.

Asteak emango genituen gogorazio jolas hartan beste hamaika pasarte ere etorriko zitzaizkigun burura. Harrituta geunden gure oroimenarekin, ez genion halako gaitasunik ezagutzen. Gure pozean amets egingo genuen liburu bapatean hustu egiten zela bere gutun guztiak, hustu egiten zela bere hitz guztiak, eta gu buruz berridazteko kapaz ginela, oroimenaren indar soilaz alegia. Baina, edonola ere, gure pentsamenduak ez ziren denak hain samurrak izango, denborarekin duda bat erneko zitzaigun barrenean, zenbat eta pasarte gehiago gogora ekarri areagotuz joango zena. Hura al zen benetan –galdetuko genion

geure buruari, ibaiaz bestaldeko errotuluari begira– oroipen guzti haiek piztu zituen *ofizinen* izena? Alde batetik baiezkotan bageunden ere, bestetik jolas hura urrunegi eraman genuela eta esajeratzen ari ginela irudituko zitzaigun. Eta irudipenak kolokan jarriko zuen ordurarte egindako erreflesio guztien sendotasuna. Dudaren eraginez gure oroimena pixkanaka isilduz joango zen, handik lasterrera zeharo mututzeko; eta orduan –loteria tokatu eta, pozez txoratzen egon beharrean, alde guztietatik amenazua besterik ikusten ez duenaren antzera– ohitura berri bat hartuko genuen, estudiante gipuzkoarrendandik bereizi eta ibai ertzeko petrilean eseritzera joatekoa. Itxaronaldi bat baino gehiago igaroko genuen postura hartan. Gure errezeloak galdera bat zuen oinarritzat: Egia izatera, nola zitekeen beste inork ez erreparatzea? Kinka hartatik ateratzeko, biografiara jotzea beste erremediorik ez genuen, eta horixe egingo genuen, behin ibai ertzeko petrilean eserita egoteaz nazkatu ginenean. Eta zera irakurriko genuen bertan: *“Assicurazioni Generaliko lan ordutegia –goizeko zortzietatik arratsaldeko zazpietara, inoiz iluntzeko zortzi edo zortzi t’erdiak arte ere bai– txit atsekabegarri gertatuko zitzaion Kafkari, eta halatan bederatzi hilabete besterik ez zuen egingo etxe hartan. Assicurazioni Generali utzi eta handik bi astera ordutegi trinkoakiko lan bat, alegia eguerdiko ordubi t’erdietan bukatzen zena, aurkituko zuen Bohemiako Erresumaren Lan Istripuen Aurkako Aseguru Etxean eta bertan iraungo zuen hariak eta 1922an tuberkulosiak jota jubilatuko zen arte”*.

Hitz bat aukeratu behar bagenu pasarte honen irakurketak eragindako inpresioa adierazteko, hitz hori zalantzarik gabe *dezepzioa* litzateke. Izan ere, azkar asko jabetuko ginen gutunek ez zutela inolako harremanik errotuluko izenarekin. Datak erreparatzen hasita, gure mesanotxean egondako liburuaren izenburua etorriko zitzaigun gogora: *“Cartas a Felice (1912)”*. Eta urtearen zenbakiari erraparaturik, ondorio garbi bat aterako genuen: Kafkak *Assicurazioni Generalin* lan egin zuen denboran, artean laupabost urte igaro beharko ziren gutun haiek idatz zitzen. Edo, beste modura esateko, bere andregaiari gutunak idatziko zizkionean ez zen *Assicurazioni* lanean egongo, beste aseguru etxean baizik. Gutunen kontu harekin denbora alferrik galdu besterik ez genuela egin deliberatuko genuen.

Dezepzioaren ondorenean, ordea, halako sosegu bolada bat ezagutuko genuen. Ostera ere dena bere lekuan zegoela zirudien. *“Kafkak bederatzi hilabete egin zituela etxe hartan? Eta zer? Zergatik arduratu pasadizo hutsal horregatik?”* egotziko genion geure buruari. Jendeak –eta munduak, oro har– arrazoi zuela juzkatuko genuen, errotulu hark ez zuen aparteko arretarik merezi. Bederatzi hilabete haietan, gainera, hogeita lau urteko eta ikasketak bukatu berri zelarik, ez haren bizitzan ez haren obran jazo omen zen ezer aipagarriarik. Gauza normala, bestalde, pentsatuko genuen, hain lan ordutegi estua eduki zuela kontuan izanik. Beraz, konformatu beharrak ginen, han ez zegoen misteriorik batere.

Asteroko zitara garaiz iristen segiko genuen; ohitura hura ez genuen sekula galduko. Eta estudiante gipuzkoarrekin bat egingo genuen autobusei itxaroten. Haien erdian, bataren eta bestearen iharduna entzungo genuen. Urliak zegoen pisua utzi eta neska-lagunarekin bizitzera joan nahiko zuen. Sandiak –gurasoekiko morrontza ekonomikoaz gogaiturik– dirua irabazten hasi nahiko zuen kosta ahala kosta. Berendiak ikasketak lehenbailehen bukatu eta herrira itzultzea beste barbarik ez zuen izango mihi puntan. Eta

mintzagai amankomun bezala, lehenago edo beranduago elkarrizketa guztietan aterako zena, jaiak, festak, ondo pasatzea, dibertitzea, eta nola ez, zurruta. Hala, nork, non, zenbat edan zuen jakingo genuen. Nork, non, zer egin zuen mozkortu zenean. Eta abar. Haiei entzunik, gure lehengo ibilerak gogoratuko zitzaizkigun. Denak berdin-berdin segitzen zuen; ez genuen damurik beranduago jaio ez izanaz.

Guztiarekin ere, itxaronaldi haietan ez ginen beti bakarrik egokituko. Noiz edo berriz gure estudiante garaiko beste baten bat ere azalduko zen bertan. Gure adinekoa, edo nagusiagoa, aidanean. *Rara avis* bat, jeneralean. Asteen joan-etorrian halako batzuekin hizketaldi oparoak izango genituen, bihotza samurtzen duten horietakoak. Beste batzuekin, aldiz, hizketan hasi eta segituan ohartuko ginen, topaerak ezer onik emango baldin bazuen, zenbait gai isilean gorde beharrak ginela. Ikasketak edota lanbidearena, kasu. Solasaldian zehar garaikide hauei ezin izango genien inola ere igarri zertan ziharduten, artean Unibertsitatean ikasten jarraitzen zuten ala ez, ikasketak amaiturik ala bertan behera utzirik zituzten, lanik egiten zuten ala ez. Hauekiko solasak oso bestelako hizpidea hartuko zuen beti. Harriturik utziko gintuzten, esate baterako, Bilboko gaua hain ondo ezagutzeaz. Behin baino gehiagotan sortuko zitzaigun galdera hay egiteko gogoa: *“Aizak! Hik, zera, Derecho, edo Ingeriaritza, edo Medikuntza ikasten huan, ez? Eta? Bukatu al huan karrera?”* Baina galdera sortu bezain laster itoko zitzaigun ezpainetan. Beste modura jokatu eta gogo hari amore eman izatera, solasaldiak ez zukeen askorik iraun izango.

Eta berdin gertatuko zitzaigun beraien bizitoki eta bizilagunei buruz. Hots, solasaldian zehar ezin izango genien inola ere igarri nora, zein auzotara, zein kaletara biltzen ziren etxerako orduan. Are gutxiago norekin partitzen zuten pisua eta nolakoak ziren beren adiskideak. Nolanahi ere, hainbeste galdera isilean gorde beharrak nekea sorerraziko zigun barrenean. Eta nekearekin batera, gure solaskide haiekiko mesfidantza. Beraien jokaerari esplikazio bat bilatu nahirik, *Bilbon bizi zirela* baino areago *Bilbora izkutatzen zirela* sinestuko genuen. Zer edo norengandik izkutatzen ziren, halere, ez genuen sekula jakiterik lortuko. Beharrik ere ez, laster galduko baiguen interesa izkutaketa jolas antzu haietan: beren buruarengandik baizik ez zirela izkutatzen erabakiko genuenean, hain juxtu.

Halatan, estudianteen biltokitik ibai ertzeko petrilerara apartatuko ginen ostera. Eta ostera ere errotulu txiki hartara joango zitzaizkigun begiak. Hura ikustean, berari buruz egindako hausnarketak berrituko genituen. Behin denak erreparaturik, beste urrats baten atarian geundelako susmoa hartuko genuen. Ikasitako bideari jarraituz, biografiara joko genuen azalpen bila. Eta bertan Kafkaren honako hitzak aurkituko genituen, 1907ko urrian administrari laguntzaile bezala lanean hasi berria zelarik idatzi zituenak: *“Assicurazioni Generalian nago, eta ez dut esperantza galtzen egunen batean urrutiko herriren bateko siloietan eseritzeko, ofizinen leihoretatik azukre-kanabera soloak edo hilerri mahomatarrek ikusteko”*. *“Edo kaioen marruak entzuteko”* gehituko genuen guk, itxaropentsu, era berean. Eta itxaropenak eragundako aldarte onak hartaturik, bulegotik ikusiko zuen paisaiaren berri ematera jarriko ginen: leihoen azpian, Nerbioi ibaia; ezkerretara, Arenaleko zubia; ibaiaz bestaldean, piska bat ezkerretara halaber, Arriaga antzokia; eta eskuinaldean, Santiago katedraleko punta-orratza.